

EZ DA ALFONBRA GORRIRIK EUSKARAZKO ZINEMA EGITEKO

Maidier Iantzi Goienetxe

2022ko euskarazko film luzeak:

- Tetuan** (Iratxe Fresneda)
Karpeta urdinak (Ander Iriarte)
Latsariak (Estibaliz Maguregi)
Gesto (Xuban Intxausti)
Bi arnas (Jon Mikel Fernandez Elorz)
Izaro: Limoiari ezitia (Izaro Andres eta Ander Merino)
918 gau (Arantza Santesteban)
Azken dantza maisua (Mikel Alvarez Sarriegi)
Ainarak (Ritxi Lizartza eta Juan San Martin)
Black is Beltza II: Ainhoa (Fermin Muguruza)
Jai Alai: azken hegaldia (Oier Plaza)
Martxoaren 28a (Malen Nicholson eta Julen Etxeberria)
Orkestra lurtarra (Imanol Zinkunegi eta Joseba Ponce)
Zure platerean hasten da mundua (Ion Fontela)
Irati (Paul Urkijo)
Gelditasuna ekaiztean (Alberto Gastesi)

Iraila Zinemaldiaren hilabetea da, ilunetan sartu eta istorioak bizitzekoa, baita glamourarena ere. Baina euskararentzat ez da alfonbra gorririk ikus-entzunezko ekitaldi nagusian: 511 emanaldietatik 60 soilik izan ziren euskaraz. Sail Ofizialean, bat ere ez. Hainbat herritar gure hizkuntzari pantailetarako bidea irekitzen ari da.

Euskarak ikus-entzunezkoetan duen leku eskasarekin arduratuta, ekimen ugari antolatu du jendeak. Udaberrian, indarrak batu eta Pantailak Euskaraz mugimendua sortu zuten sei proiektuk: Netflix euskaraz eta Disney+ euskaraz, Tinko Euskara Elkartea, bikoiztaileen murrizketei aurre egiteko Bieuse elkartea, zinemetan euskarazko edukiak bultzatzeko Zinemak Euskaraz kanpaina eta bideojokoetan euskara indartzea helburu duen Game Erauntsia. Zinemaldia hasi baino ordubete lehenago, elkarretaratzea egin zuten Kur-saalen parean, euskalgintzako eta kulturako makina bat lagunek babestuta. «Nekez uler daiteke hainbeste diru publikorekin antolatzen den ekitaldi hone-tan, bi hizkuntza ofizial dauden lurralde batean, euskarak, eta beraz euskaldunok, horrelako diskriminazioa jasatea», salatu zuten tinko.

Alex Aginagalde plataformako kideak GAUR8ri kontatu dionez, protesta hark oihartzun handia izan zuen eta kontaktu informala eduki zuten jaialdiko arduradunekin. «Euskara plan bat onartu berri dute eta prest daude gurekin bildu eta euskararen presentzia nola handitu daitekeen aztertze-ko».

69. edizio honetan, 511 emanaldietatik 27 izan ziren jatorriz euskaraz, ele bitan ala hiru eletan, eta 33 saiotan jarri zituzten euskarazko azpidatziak. Guztira, emanaldien %11 izan ziren euskaraz. Gaztelaniaz

ala gaztelaniazko azpidatziekin, berriz, denak, araudiak hala aginduta.

Aretoetan estreinatzen diren filmei erreparatzen badiegu, egoera tamalgarriagoa da oraindik: %1 inguru izaten da euskaraz, eta «streaming» plataformetako pelikulen %0,1 baino gutxiago. Euskaraz sortutakoez gain, Zineuskadik Zinema Euskaraz programaren bidez bikoiztuta haurrentzat urtean hamar bat film estreinatzen dira Hego Euskal Herrian, baina ez dira Iparralde-ira iristen eta Nafarroara ere gutxi, bakan batzuk Iruñeko Golemera.

EZ DUTE LEGEA BETETZEN

«Erakundeek ez dituzte euren legeak ere betetzen», gaitzetsi du Aginagalde, ez EAEko euskararen normalizazio- ziorako legea, ez Nafarroako foru le-geak, ezta Europako eskualdeetako hizkuntzen karta ere.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoakoak 40 urte bete ditu eta zehazki aipatzen du zinema: «Jaurilaritzak neurriak hartuko ditu bi hizkuntza ofizialen erabilera arian-arian berdintzeraino», dio. «Zein urrun gauden. Hizkuntza ofizialen ar- teko berdintasun formala ez da berdin-





tasun materiala. Euskal hiztunak bigarren mailakoak gara, eta horrek eragina dauka hizkuntza ohituretan. Gure aisialdia gero eta lotuago dago pantailari: telebista, tableta, sare sozialak... eta horietan euskararen presentzia oso txikia da. UEMAren azken ikerketak dioenez, udalerri euskaldunetako gazteek ere gaztelaniaz eta ingelesez kontsumitzen dituzte gehienbat edukia».

ZER EGIN DAITEKE?

Pantailak Euskararen arabera, EAEk eta Nafarroak gutxienez badituzte esku-menak hau guztia arautzeko eta estatuko Ikus-entzunezko Legea garatzeko. Zinemaren legea izateko eskumena ere badute. Kataluniak badu, eta %50 katalanez izatea ezartzen du. «Egia da Auzitegi Konstituzionalak %25era jaitsi zuela arau formalen batean oinarrituta. Egia da ez dela betetzen %25 hori ere. Halere, %22koa da».

«Hori hemen ere egin daiteke, zinemaren lege bat onartzea edukien %50 euskaraz izatea bermatuko duena», aldarrikatu du Alex Aginagaldek.

Hori egiteko eta betetzen dela ziurtatzeko ikus-entzunezko kontseilu bat

Lehenengo irudian, Pantailak Euskararen protesta Donostian, irailean. Bigarrenean, «Irati» filmaren aurkezpena Durangoko Azokan, Paul Urkijo zuzendariarekin eta protagonistekin. Iñaki L.L. / WIKIMEDIA Aritz LOIOLA / FOKU

sortzea garrantzitsu ikusten du. Europako herri gehienek badute, Valentzia, Andaluzia eta Kataluniak ere bai. Azken honetan, kontseilua izan da estatuko Ikus-entzunezko Legearen inguruko zuzenketa guztiak landu eta proposatu dituen.

IKUS-ENTZUNEZKO LEGEA

Pantailak Euskarazek fronte bat osatu zuen Kontseilua, Ekimen euskal eragileen elkarte, Tokikom eta Topagunearekin. Ikus-entzunezkoak Euskaraz plataforma sortu zuten elkarrekin eragiteko eta Ikus-entzunezko Lege horri zuzenketa proposatzeko.

«Ez da nahiko genukeen legea, ez ditu euskaldunon eskubideak berma-

tzen. Kuota txiki batzuk ezartzen ditu, baina ez dira derrigorrezkoak egoitza estatutik kanpo duten plataformentzat eta horiek dira etxe guztietan ditugunak. Halere, bai behartzen ditu egoitza kanpoan izan arren jarduera estatuan egiten duten multinazionalak euren urteko irabazien zati bat bertako ikus-entzunezkoetara bideratzera».

Praktikan, milioi bat euro baino gutxiago bideratu beharko lizkieke Netflixek euskarazko ikus-entzunezkoari. Netflixen duela urtebete hiru eduki zeuden euskaraz. Orain, 70 daude. Prime Videon, 40tik gora daude eta iaz bakarra zegoen. «Pauso txiki batzuk ematea lortu dugu», baloratu du Pantailak Euskaraz mugimenduak.

Paul Urkijoren «Irati» izan da aurten euskaraz estreinatu den filmetako bat. Donostiako Beldurrezko eta Fantasiarazko Astearen ikusleen saria eskuratu zuen. Sitgesetik bi sarirekin itzuli zen: ikusleena eta efektu bereziena

14 urteotan EiTBk parte hartu duen 208 ekoizpenetatik 70ek izan dute jatorrizko bertsioa euskaraz. Bi heren gaztelaniaz ekoitzi dira eta heren bat euskaraz. Pantailak Euskarazek gutxienez erdia euskaraz egiteko eskatzen dio

